

RUEDA DE PRENSA

CONVOCATORIA DE LA MANIFESTACIÓN: ES NUESTRO DERECHO, PAZ Y LIBERTAD. ETA EZ

En estos momentos desde Gesto por la Paz consideramos prioritario que la sociedad se movilice con un claro mensaje: exigir a ETA su desaparición; esto es, el fin inmediato y definitivo de su propia actividad terrorista, el fin, por supuesto, de la permanente amenaza de terror y el fin definitivo de la violencia de persecución que ejercen quienes apoyan y respaldan su actividad terrorista. Esta es la prioridad, que trágicamente ha impuesto ETA. Ella ha roto las esperanzas de paz de la gran mayoría de la sociedad vasca y navarra.

El próximo sábado 10 de Febrero, Gesto por la Paz convoca la manifestación que todos los años celebra en torno al Día de la no-violencia y la paz. El lema de esta marcha será: "Es nuestro derecho, PAZ y LIBERTAD. ETA ez"

Paz y libertad

Cada uno de los ciudadanos que conforman este pueblo tiene derecho a vivir en Paz y en Libertad. Es su derecho, es nuestro derecho. Después de 20 años, reivindicamos la paz como fuente de justicia frente la absoluta injusticia que supone disponer de la vida de otro ser humano. Reivindicamos la paz frente a quienes pretenden quebrantar la convivencia entre diferentes tratando de hacer saltar por los aires la rica pluralidad de nuestra sociedad y una normalizada convivencia entre nosotros. Y seguimos reivindicando la paz porque, desgraciadamente, continúa siendo absolutamente imprescindible denunciar el uso de vidas humanas como medio para tratar de alcanzar determinados objetivos políticos; por eso, seguimos defendiendo el derecho a la vida. No puede ser el resultado de una negociación o algo con lo que se mercadea para intentar alcanzar determinados objetivos políticos. También reivindicamos la libertad necesaria para vivir en democracia. No podemos permanecer callados ni mirar hacia otro lado mientras amenazan a personas que no piensan como quienes apoyan la violencia, ni mientras queman sedes de partidos políticos porque no comparten sus métodos, ni mientras extorsionan, chantajea y presionan hasta lo insoportable a quienes no ceden a sus peticiones mafiosas. La democracia exige una importante cuota de libertad que hoy en día en Euskal Herria no existe. En estos momentos la mayor amenaza para la paz y libertad la constituye ETA y su entorno al volver a la actividad terrorista.

A quienes ejercen, apoyan, justifican y contextualizan el uso de la violencia

ETA y todo el mundo que le apoya tienen que ser los receptores directos del clamor y de las ansias de paz de nuestra sociedad. Son ellos los que tienen que tomar la decisión definitiva e irrevocable de abandonar la estrategia de la violencia. Y esa decisión la tienen que tomar YA!

La persistencia en esta estrategia terrorista es absolutamente rechazable desde el punto de vista ético y político, pero además, se sitúa completamente fuera de la realidad de los tiempos en que vivimos, en los que la gran mayoría de sociedad vasca ha manifestado reiteradamente su rechazo al terrorismo. Tampoco se puede obviar las cotas de desprestigio internacional que ha alcanzado el terrorismo. En este contexto y no en otro ETA continúa con su estrategia del terror desoyendo a la sociedad.

Hay que apelar a que el mundo que sigue justificando y contextualizando la violencia de ETA haga una apuesta clara por la política. No aceptamos bajo ningún concepto la imposición de un modelo de sociedad a través de la violencia. Apostamos por la democracia y por el juego político y consideramos que quienes tratan de ejercer presión a través de la violencia se autoexcluyen de la política porque **violencia y política son realidades absolutamente antagónicas**. Quienes no son capaces de desmarcarse de la violencia y denunciar su uso absolutamente ilegítimo e inmoral, tienen que asumir que cierran la puerta al ejercicio de la política, que desprecian el mismo concepto de democracia, que cierran la puerta a reconocer el respeto a los derechos humanos, que se niegan a asumir la pluralidad de nuestra sociedad, que desautorizan absolutamente cualquiera de sus reivindicaciones, en definitiva, que se muestran absolutamente incapaces de realizar ninguna aportación positiva a nuestra sociedad. ¿Qué futuro se podría diseñar si ha sido creado por la presión de las balas y las bombas? ¿Qué escenario se crearía a base de la eliminación física de los adversarios políticos?

No se puede esperar a conseguir determinados objetivos para tomar la decisión de abandonar la estrategia de la violencia. La apuesta por la política hay que hacerla aceptando sus limitaciones y también sus posibilidades, aceptando sus miserias y sus grandezas. Ese es el escenario, siempre mejorable, de la política.

A la sociedad y sus políticos

Al resto de la sociedad, a quienes nos manifestamos claramente en contra de la violencia, nos queda continuar expresando nuestra firmeza contra la violencia y nuestra apuesta por los medios pacíficos y democráticos como el único medio posible para alcanzar cualquier objetivo político. Esto es, continuar con el compromiso con nuestro presente y nuestro futuro que iniciamos ya hace muchos años porque esa será la única forma de cambiar el desaliento por la esperanza.

En esta situación las Instituciones y los partidos políticos tienen una responsabilidad específica que no pueden eludir, ni traspasarla a la sociedad. Ellos son los responsables de gestionar cómo afrontar desde la política el problema del terrorismo. Nuestra primera demanda es de unidad, de situar el problema político fuera del plano partidista donde se puedan compartir estrategias y posiciones. Si esta actitud no es posible, como por desgracia estamos siendo testigos, al menos es exigible que el problema del terrorismo no se utilice de forma electoralista, porque esa percepción la tiene un buen número de ciudadanos, lo que debería hacer reflexionar con urgencia a los responsables Institucionales y de las fuerzas políticas para intentar tomar medidas urgentes que hagan corregir esta situación.

Las víctimas, nuestro motor

Por desgracia, en este contexto de permanente discusión sobre el tema del terrorismo existen unas grandes olvidadas, las víctimas. Su situación no solo no mejora, sino que incluso se agrava cuando observan estos enfrentamientos partidistas en las que ellas, las víctimas, pueden estar en boca de todos y al mismo tiempo sienten mayor olvido y alejamiento de la sociedad. Precisamente su reconocimiento debe ser el impulso de nuestro camino hacia la paz. En la manifestación del 10 de febrero al exigir la desaparición de ETA, estaremos rindiendo nuestro homenaje a cada una de las personas que fueron víctimas del ataque del terrorismo contra nuestra sociedad. Por supuesto, recordaremos de manera especial a Carlos Alonso Palate y Diego Armando Estacio, las últimas víctimas de la intolerancia de ETA.

La manifestación partirá el sábado 10 de febrero, a las 17'30 h., desde la Plaza Sagrado Corazón de Bilbao hasta el Ayuntamiento. Hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe en esta marcha que nos gustaría se convirtiera en un silencioso grito que desde la diferencia nos uniera a todos en nuestro deseo de paz frente a la más absoluta intolerancia y el totalitarismo de ETA. Es nuestro derecho.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

2 de febrero de 2007



PRENTSAURREKOA

MANIFESTAZIORAKO DEIALDIA: ES NUESTRO DERECHO, PAZ Y LIBERTAD. ETA EZ

Une hauetan, Bakearen aldeko Koordinakundetik lehentasuna ematen diogu gizartea mobilizatu eta ETAREN desagerpena exijitzen duen mezua zabaltzeari; hau da, berehala eta behin-betiko, bere jarduera terroristari uko egin diezaiola eta, jakina, uko egin diezaiola etengabeko mehatxuari eta bere ekintza terrorista babesten eta laguntzen dutenek ez dezatela gehiago jazarpen indarkeria erabil. Hauxe da ETAK, zoritxarrez, inposatu digun errealitatea. ETAK hautsi ditu Euskadiko eta Nafarroako herritar gehienon bake itxaropenak.

Otsailaren 10ean, larunbatez, Bakearen aldeko Koordinakundeak urtero indarkeriarik-eza eta bakearen Egunaren inguruan egiten duen manifestazioa ospatuko du. "Es nuestro derecho. PAZ y LIBERTAD. ETA ez" da aurtengo goiburua.

Bakea eta askatasuna

Herri honetan bizi garen guztiok dugu Bake eta askatasunean bizitzeko eskubidea. Herritar guztien eskubidea da; geure eskubidea da. Hogeitaz urteren ostean, bakea errebindikatzeko dugu justiziaren iturri bezala, beste gizaki baten bizia nork bere nahierara erabiltzea den erabateko bidegabekeriaren aurrean. Bakea errebindikatzeko dugu, gure gizartearen aniztasun aberatsa eta gure arteko bizikidetzak normalizatu pikutara bidaliz, desberdinen arteko bizikidetasuna hautsi nahi dutenen aurrean. Eta bakea errebindikatzeko dugu gaur ere, zoritxarrez, guztiz beharrezkoa delako giza bizitzak helburu politiko jakin batzuk lortzeko bidetzat hartzea salatzea; horregatik, gaur eta beti, biziaren eskubidea defendatzen dugu. Bizia ez da negoziazio baten emaitza edo helburu politiko batzuk lortzeari begira, merkatugaitzat hartzen den zerbait. Demokrazian bizitzeko ezinbestekoa den askatasuna ere errebindikatzeko dugu. Ezin gara isilik geratu edo ezin dugu beste aldera begiratu, indarkeria babesten dutenek bezala pentsatzen ez duten pertsonak mehatxatzen dituzten bitartean; beren metodoekin bat ez datozelako, alderdi politikoaren egoitzak erretzen dituzten bitartean; beren eskaera mafiosoaren aurrean amore ematen ez dutenek estortsioa, txantajea eta azken muturrerainoko presioa jasaten duten bitartean. Gaur egun Euskal Herrian ez dagoen askatasun-kuota bat eskatzen du demokraziak. Une hauetan, argi eta garbi dago zein den bake eta askatasunaren aurkako mehatxu nagusia: ETA eta bere ingurukoak jarduera terroristara itzuli izana.

Indarkeriaren erabilera gauzatzen, babesten eta justifikatzen dutenei

ETAK eta babesten duen munduak izan behar dute gure gizartearen deiadar eta bake irrikaren jasotzaile zuzenak. Beraiek hartu behar dute behin-betiko erabaki hori: indarkeriaren estrategia bertan behera utzi eta, erabaki horretan, inoiz atzera ez egin. Eta erabaki hori ORAIN hartu behar dute.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

Estrategia terrorista honetan irautea guztiz onartezina da ikuspuntu etiko eta politikotik, baina, gainera, garai honetan jarduera horrek ez du lekurik, euskal gizartearen gehiengoak behin eta berriro adierazi duelako terrorismoaren gaitzespena. Ezin dugu ahaztu, bestalde, terrorismoak nazioarte mailan nabarmen galdu duela ospea. Testuinguru honetan jarraitzen du ETAk izua zabalduz, gizarteari entzungor eginez.

ETAren indarkeria justifikatzen duen munduari dei egin behar zaio politikaren aldeko apustua egin dezan. Ez dugu onartzen, inola ere, indarkeriaren bitartez ezarritako gizarte eredurik. Demokraziaren eta joko politikoaren alde egiten dugu eta indarkeriaren bidez presioa egin nahi dutenak politika utz dezatela eskatzen dugu, ***indarkeria eta politika errealitate guztiz aurkakoak direlako***. Indarkeria uzteko eta bere erabilera ilegítimo eta ez-morala salatzeke gauza ez direnek politika egiteari ateak ixten dizkiotela, demokraziaren kontzeptua bera mesprezatu egiten dutela, giza eskubideak errespetatzeari uko egiten diotela, gure gizartearen aniztasuna aitortzea baztertzen dutela, beren errebindikazio guztiak baliorik gabe uzten dituztela, azken batean, gure gizarteari ekarpen positibo bakarra egiteko ezgai direla onartu behar dute. Zein etorkizun diseinatu daiteke balen eta bonben presiopean sortu bada? Zein eszenatoki sortuko litzateke aurkari politikoak akabatuz?

Ezin da helburu jakin batzuk lortzeko zain egon, indarkeriaren estrategia uzteko erabakia hartzeko. Politikaren aldeko apustua bere muga eta aukerak onartuz, bere miseria eta handitasunak onartuz egin behar da. Horixe da politikaren eszenatokia, hobe daitekeen eszenatokia, jakina.

Gizarteari eta politikoei

Indarkeriaren kontra gaudela adierazi nahi diegu gainerako herritarrei eta sendo jarraituko dugula indarkeriaren aurka eta bide baketsu eta demokratikoen alde, horixe delako edozein helburu politiko lortzeko bide bakarra. Hau da, duela urte asko gure orainarekin eta geroarekin hartu genuen konpromisoari eutsiko diogu, horixe delako etsipena itxaropen bihurtzeko bide bakarra.

Egoera honetan, erakundeek eta alderdi politikoez ezin saihesten dezaketen eta gizartearen gainean ezin utz dezaketen erantzukizuna dute. Beraien ardura da politikatik terrorismoaren arazoari aurre egitea. Batasuna eskatzen diegu lehenengo eta behin; arazo politikoa alderdikieretatik kanpo koka dezatela, estrategia eta jarreretan bat egin dezaten. Jarrera hau posible ez bada –zoritzarrez ikusen ari garenez-, gutxienez ez dezatela terrorismoaren arazoa hauteskundeetan etekinak ateratzeko erabili, herritar askok sumatzen duenez; hau dela-ta, erakunde eta alderdi politikoetako arduradunek gogoeta sakona egin beharko lukete egoera hori zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.

Biktimak, gure motorea

Zoritzarrez, terrorismoaren gaiaren inguruko etengabeko eztabaida honetan bizkorren ahazten direnak biktimak dira. Beren egoerak ez du hobera egiten, ez; okerrera egiten duela esan dezakegu, batez ere alderdi hauen arteko liskarrak ikusten

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

dituztenean eta beraiek, biktimak, denen ahotan egon arren, gizartean ahaztuta eta baztertuta daudela sentitzen dutenean. Biktima horiek kontuan hartzeak bultzatu behar gaitu, hain zuzen ere, bakerako bidean. Otsailaren 10eko manifestazioan, ETaren desagerpena eskatzeaz batera, gure gizartearen aurkako terrorismoaren erasoaren biktima izan ziren guztiei gure omenaldia eskainiko diegu. Jakina, oroitzapen berezia izango dugu Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio ETaren intolerantziaren azken biktimentzat.

Manifestazioa otsailaren 10ean, larunbatez, izango da, Bilboko Jesusen Bihotza plazatik Udaletxeraino. Dei egiten diegu herritar guztiei ibilaldi honetan parte har dezaten. Desberdintasunak desberdintasun bake nahiean denok batzen gaituen oihu isil bihurtu nahiko genuke, beste behin ere, ETaren intolerantzia eta totalitarismo izugarria gaitsezteko. Gure eskubidea da.

COORDINADORA GESTO POR LA PAZ DE EUSKAL HERRIA
EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

2007.eko otsailaren 1a



Apdo. 10.152 - 48080 Bilbao – Tfno 94 4163929 - Fax 94 4153285

Apdo. 176 – 31080 Pamplona – Tfno. Fax: 948 223135

Apdo. 2.063 – 01080 Vitoria Gasteiz- Tfno. Fax: 945 226838

Apdo. 5.005 – 20080 Donostia – Tfno. Fax: 943 210906

e-mail: gesto@gesto.org <http://www.gesto.org>